



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

**2018KO UZTAILAREN 20AN BASABURUKO UDALAK
EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2018ko uztailaren 20an, eguadiako 15:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ez ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz eta Bakartxo Ripalda.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena, Aitor Arangoa.

15:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Apeztegiberriko 1. pisua egokitzeke, obraren esleipena.

Alkateak adierazten du aurreko astelehean egin zela 1. irekiera eta bertan erabaki zela aurkeztu ziren bi enpresei berme epearen luzapenaren inguruan, adieraztea, zenbat eskaintzen zuten luzapen bezala eta zenbat izango den guztira berme epea kontutan hartuta gutxienezkoa hiru urtekoa dela.

Uztailaren 18an eta posta ziurtatuaz, uztailaren 6an posta bulegoan sarrera emandako proposamena aurkeztu zuen Zubigain S.L enpresak, hortaz legeak onartzen duenez posta bulegoa erregistro orokor bezala, onartutzat eman behar da enpresa horrek aurkeztutako dokumentazioa eta ireki behar da.

Kontratazio mahaiak, aurkeztutako 3 proposamenak aztertu eta ondoko emaitza ezagutarazten du:

Enpresa	Proposamen ekonomikoa	Berme epearen luzapena	Guztira
Zulaga	90	2	92

Felix Construcciones	86,87	2	88,87
Zubigain	83,33	0	83,33

Hau ikusita, bildutakoek onartzen dute ondoko erabakia:

- **Zulaga enpresari ematea Apeztegiberrriko lehengo pisua egokitzeko obra proiektua 55.004,82 eurotan, berme epearen luzapena urtekoa izanik eta gutxieneko hiru urteak kontutan hartuz, obraren berme epea lau urtekoa izanen dela onartuz.**
- **Erabaki hau jakinaraztea Zulaga enpresari eta esleipenera aurkeztutako beste enpresei.**

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 15:30 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.